

2- Atal honetan, gure bezeroak definitu behar ditugu, izan ere, haiek dira gure negozio edo proiektuaren jomugak. Gure bezeroak aiton-amonak dira, batez ere, adineko pertsonak (65 urtetik gorakoak) eta teknologia berrietan ezagutza mugatua dutenak. Haien behar nagusia telefonoak eta teknologia erabiltzeko trebetasunak ikastea da, bai komunikatzeko, bai entretenimendurako edo eguneroko bizitzako eginkizunetan laguntzeko.

Gure produktuak eta zerbitzuak erraz erabiltzekoak eta argi eta sinpleak dira, eta horrek gure bezeroei teknologiari buruzko beldurrak gainditzen laguntzen die. Bezeroek laguntza pertsonalizatua eta jarrera errespetuotsua baloratzen dute, eta gure helburua da haien autonomiararen eta konfiantza teknologikoaren hazkundea sustatzea.